

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2332

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 16koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoa.

Bidezkoa da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen 2013ko uztailaren 10eko Agindua aldatzea (2013ko uztailaren 31ko EHAA). Agindu hori lehendik ere aldatua izan da: lehen aldiz 2014ko ekainaren 3ko Aginduz (uztailaren 11ko EHAA), eta, berriro, 2015eko uztailaren 9ko Aginduz (2015eko uztailaren 24ko EHAA).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legeak – irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak – ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuan ezarritakoarekin bat, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak aldeko txostena eman duenez, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 2. artikuluan 2. paragrafoa aldatzen da, zeina aurrerantzean honela idatzita geratuko baita:

«2.– Interesduna matrikulatzeko unean, prezio publiko horien diru-zenbatekoa aurretik ordainduta izatea eskatu ahalko da.

Hala ere, Musika Kontserbatorio Profesionaletako eta Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolako ikasle ofizialen matrikulagatik, ordainketa antzeko hiru epetan ordaindu ahal izango dira prezio publikoak: lehenengoa matrikula egitean, bigarrena abenduko lehenengo astean, eta hirugarrena otsaileko lehenengo astean».

Bigarren artikulua.– d) idatzi-zatia gehitzen zaio Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 2.4 artikuluari, zeina aurrerantzean honela idatzita geratuko baita:

«d) Kredituka egituratutako goi-mailako arte-irakaskuntzetan, ohorezko matrikulagatik egiten diren kenketak ikasketa berberen hurrengo matrikulan aplikatuko dira.

Kenketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei bakarrik aplikatuko zaizkie, inolaz ere ez beste erkidegoetatik datozenei.

Batxilergoko ikasgaietan lortutako ohorezko matrikulek ez dute murrizketa-eskubiderik emango. Soilik kalifikazio globala ohorezko matrikula bada izango dute salbuespen-eskubidea, goi-mailako

ikasketak hasten duten lehen aldian, matrikula ordaintzeari dagokionez. Salbuespen hori izateko, hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da».

Hirugarren artikulua.– Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 4. artikulua 1. paragrafoa aldatzen da, zeina aurrerantzean honela idatzita geratuko baita:

«1.– EGA lortzeko azterketetarako sarrera–zerbitzuaren prezio publikoaren zenbatekoa 24 eurokoa da deialdiko».

Laugarren artikulua.– Aldatu egiten da Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen dituen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren eranskina, kirol-irakaskuntzei dagokien zatian, zeina agindu honen eranskinean jasotakoak ordeztu baitu.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 16a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2016ko ekainaren 1a, asteazkena

ERANSKINA

KIROL-IRAKASKUNTZAK

A) Natura-ingurunean garatzen diren kirol-modalitate eta –espezialitateak

	Euroak
1.– Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako	9,36
2.– Derrigorrezko zerbitzuak	5,64
3.– Ikasketa-espedientea tokiz aldatzea	21,60
4.1.– Kurtso osoa (prestakuntza-modulu bakoitzaren prezioa, multzo komunarena eta osagarriarena izan ezik).	58,26
4.2.1.– Kurtso osoa (erdi-mailako multzo komuneko eta multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	10,94
4.2.2.– Kurtso osoa (goi-mailako multzo komuneko eta multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	13,12
5.1.– Prestakuntza-moduluen egokitasun formatiboa edo baliozkotzea (prestakuntza-modulu bakoitzaren prezioa, multzo komunarena eta osagarriarena izan ezik).	14,56
5.2.1.– Prestakuntza-moduluen egokitasun formatiboa edo baliozkotzea (erdi-mailako multzo komuneko edo multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	2,73
5.2.2.– Prestakuntza-moduluen egokitasun formatiboa edo baliozkotzea (goi-mailako multzo komuneko edo multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	3,28
6.1.– Gaingitu gabeko prestakuntza-moduluak (prestakuntza-moduluaren prezioa, multzo komuna eta osagarria izan ezik).	93,24
6.2.1.– Gaingitu gabeko prestakuntza-moduluak (erdi-mailako multzo komuneko eta multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	12,34
6.2.2.– Prestakuntza-modulu amaitu gabeak (goi-mailako multzo komuneko edo multzo osagarriko ordu-kreditu bakoitzaren prezioa)	14,80
7.– Berariazko sarbide-proba	28,02

B) Bestelako kirol-modalitate eta -espezialitateak

B.1.– Kirol-teknikarien titulazioa

	Euroak
1.– Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako	9,36
2.– Derrigorrezko zerbitzuak	5,64
3.– Ikasketa-espedientea tokiz aldatzea	21,60
4.– Kurtso osoa (ordu-kreditu bakoitzaren prezioa)	10,94
5.– Prestakuntza-moduluen egokitasun formatiboa edo baliozkotzea (ordu-kreditu bakoitzaren prezioa).	2,73
6.– Gainditu gabeko prestakuntza-moduluak (ordu-kreditu bakoitzaren prezioa)	12,34
7.– Berriazko sarbide-proba	28,02

B.2.– Goi-mailako Kirol-teknikarien titulazioa

	Euroak
1.– Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako	9,36
2.– Derrigorrezko zerbitzuak	5,64
3.– Ikasketa-espedientea tokiz aldatzea	21,60
4.– Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	13,12
5.– Prestakuntza-moduluen egokitasun formatiboa edo baliozkotzea (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	3,28
6.– Gainditu gabeko prestakuntza-moduluak (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	14,80
7.– Berriazko sarbide-proba	28,02